



ESKOLA PUBLIKOAREN EGUNGO EGOERA

Krisi garaia aitzakia hartuta, gobernu zentrala zein nafarrak azken hamarkadetan lortutako lorpen sozialekin bukatzeko ahalegin eroa burutzen ari dira. Behin eta berriro errepikatzen ari diren diskurtsoa honakoa da: irtenbide bakarra da lortutako ongizate sozial ahula bertan behera uztea: oinarritzko errenta, doako osasuna eta hezkuntza...

Etengabe hartzen ari diren erabakiek bidelagun dute mezu hau: ez dago beste aukerarik.

EGOERAREN ANALISIA:

Lan baldintzen kaskartze etengabea:

- ⤴ Ikasle kopuru gehiago; plantillak, berriz, bere horretan mantendu (+%2,54 2009 urtetik 2011 urtera)
- ⤴ Haur eta Lehen Hezkuntzan ez da izan adostutako zuzeneko eskola saioen murrizketa, eta Bigarren Hezkuntzan nabarmena da eman den atzerapausoa.
- ⤴ Behin behineko kontratatu gutxiago eta kontratu prekarioagoak.
- ⤴ Irizpide lotsagarriak ordezkapenak egiteko, mobilizazioen ondoren egindako aldaketak barne (gehigarria)
- ⤴ Lan-karga eta burokraziaren handitzea eta ondorioz, denbora gutxiago bestelakoei heltzeko: hausnarketa, proiektuak burutzea...
- ⤴ Jubilazioaren baldintzen okertzea (gehigarria)
- ⤴ Hezkuntza Premia Bereziak aitortzeko baldintzen zailtzea, eta ondorioz baliabide zehatz gutxiago eta ikasgela barruan ohiko laguntza gehiago egin beharra.
- ⤴ Gero eta formazio urriagoa, baliabide eskasaren ondorioz (- %71,89 2008 urtetik hona)
- ⤴ Erosteke ahalmenaren txikiagotzea: soldataren jaitsiera 2010eko ekainean, eta soldata izoztua geroztik (%10,4 eta 12,4 bitartekoa)

Ikastetxeetako baliabideak.

Azken bi urteetan murrizketek, bestek beste, hauetan dute eragina:

- ✓ Azpiegitura eta ikastetxeetako mantenuan
- ✓ Garbiketan
- ✓ Ikastetxeetako ohiko jardueretan
- ✓ Eskolaz kanpoko jardueretan

Ikasleak eta familiak.

Doakotasuna gero eta txikiagoa da Hezkuntzan: liburuak erosteko, jantokirako, garraiorako... diru-laguntzak gero eta txikiagoak dira, eta ondorioz, familien zailtasunak gero eta handiagoak.

Guraso elkarteek diru-iturririk gabe geratu dira funtzionamendurako.

Negoiazioa administrazioarekin.

- ⤴ Behin Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko ITUNA bukatu ondoren, hitzarmen berria negoziatu behar da, baina beti ere lortutakoa mantenduz eta beteko dutela bermea dugunean.
- ⤴ Momentuz ez dago bat ere konpromisorik abuztuan planteatutako puntuekin (murrizketen eta hartutako neurrien behin-behinekotasuna, eta Hezkuntzako inbertsioa errekuperatzea), salbuespen bakarra da alde normatiboetan eta kosterik gabeko neurrietan.
- ⤴ Irakasleen ordezkaritza sindikalari indarra kentzeko asmoa garbia da. "Lan-batzordeek" Mahai Sektorialaren lana ordezkatzeko luke. Azaroaren 7ako Mahai Sektorialean esan zen bezala, "Administrazioak aukeratutako prozedimendua negoziatziorako" Lan-

batzordeak izango lirateke. Beranduago, Departamentuak beste moduan aurkeztu du informazioa eta Mahai Sektoriala mantenduko dela baieztatu du, baina argi dago aurretik sukaldatu nahi dituzte gaiak, denborak luzatu eta azken finean akordiorik gabe nahi dutena inposatu, orain arte egin duten bezala. Ekarpenei kasu ez egitea ohizkoa da bain Departamentuen arduradunek haratagoa joan dira, ez dute ezta erantzuten ere. Eskola Kontseiluan jarrera bera erakusten dute, Administrazio eta Hezkuntza Pribatuaren ordezkariak batera bozkatzeko dute eta Hezkuntza Publikoaren sindikatu eta familien ordezkariak, gutxiengoa direla, inposatzen dizkiete erabakiak.

- ▲ STEE-EILAS, LAB, CCOO eta ELAK " Lan-Batzordetan parte ez hartzea erabaki genuen eta beste sindikatuak konbenzitu nahi ditugu negoziatzeko itzuli behar direla behar den esparrura, Mahai Sektorialera. Horrez gain, neurri legalak hartuko ditugu.

ZER GERTATU BEHAR DA IRAKASKUNTZAN LEGEALDI HONETAN?

Madrilatik datozen berriak ez dira lasaigarriak:

- ▲ Hezkuntza lege berria
- ▲ Sarbide sistema berria
- ▲ Plaza gutxi LEPetan, izaten badira
- ▲ Orduetara luzatzearen posibilitatea
- ▲ Irakaskuntza zuzenean ordu gehiago? Ratio handiagoak?....

BESTE NEURRIAK POSIBLEAK DIRA.

Sinestarazi nahi digute "ez dagoela beste erremediorik", "ez dagoela beste irtenbiderik" baina ez da egia, beste neurriak har daitezke:

- Fiskalitate justuago eta progresiboagoa ezartzea. Kapital erreteiei zergak gehiago ezartzea eta ez zamatatu gutxien dutenak.
- Diru publikoa beste moduz erabiltzea: inbertitzea pertsonengan, hiritarrentan eta ez alperrik xahutzea beharrezkoak edota lehentasunezkoak ez diren eraikuntza erraldoietan.
- Zerbitzu publikoak indartzea hiritar guztiei kalitatezko zerbitzuak eskainiz, gaur egun inoiz baino beharrezkoak baitira.

MOBILIZAZIOA DA BIDEA.

Lehenengo hiru hilabeteetan mobilizazio anitz izan dira: ikastetxeen aurrean pankartekin elkarretaratzeak egin dituzue, gurasoei informazioa bidali, asanbladak egin dituzue, irakasleon lana duindu da, baita eskola publikoa ere; manifestazioak, lanuzteak, greba... egin ditugu eta zerbait lortu da: kontratu batzuk hobetzea, ordezkapenentzako hasierako baldintzak hobetzea.... Baina murrizketak basatiak izan dira eta oraindik ez dira bukatu.

Egoera oso larria da, baina etsipena ez da bidea, hori saldu nahi digute. Ezin gara isildu gobernuen zuzengabekeriaren eta merkatuen exigentziaren aurrean. Mobilizazioa da bide bakarra bere inposizioei aurre egiteko.

Eta hemendik aurrera zer?

Eskola Publikoan gatazken irudia ez emateko, matrikulazio kanpaina irauten duen bitartean protestak etetea eskatu zaigu. STEE-EILASek kanpaina horretarako mezu positiboa eskaini nahi du: eskola publikoa kritikoa, eleanitza, parte-hartzailea... da, eta gainera bere kalitatea defendatzeko IRAKASLE KONPROMETITUAK ditu. Argi eta ozenki esan behar da. Mahai orokorreko eta sektorialeko gehienek abenduaren 21ean Zerbitzu Publikoak defendatzeko manifestazio batera deitu genuen eta orain biltzen ari gara bestelako erantzunak antolatzeke. Adi egon! mobilizazio orokorrak edota sektorialak izango baitira epe laburrean.

www.stee-eilas.org



STEE-EILAS ez dator bat Hezkuntza Departamentua aplikatzen ari den ordezkapenak egiteko erabiltzen ari den irizpideekin. Aldaketa txiki bakan batzuk sartu dituzte, baina funtsean inposaketa hutsa izan da.

Lizentzia eta baja guztiak etapa guztietan lehendabiziko egunetik ordezkatu behar direla pentsatzen dugu ikasle guztiei hezkuntza arreta bermatzeko.

Nahiz eta proposatu dizkiguten irizpideekin ados ez egon ikasturtearen hasieran ezarritakoak baino leunagoak direlakoan gaude. Horregatik dokumentua ezartzen dira irizpideak komentatzen ditugu eta eskatzen dugu behin behinekoak izatea eta datorren ikasturterako berrikustea.

1. Ordezkapen guztietarako irizpide komunak:

- ✓ Ikastetxera joanen den ordezkoak jai epeak kontuan hartu gabe hasiko dira lanean.
- ✓ Aitatasuna eta ezkontza bikote egonkorra baimenak ordezkatu dira.
- ✓ Soldatarik gabeko lizentziak lehenengo egunetik ordezkatu dira.
- ✓ Zuzeneko irakaslanaren murrizketa duten pertsonen ordezkapenak jardunaldi osokoak izanen dira.

2. Lanpostu bakoitzaren irizpide zehatzak:

- ⤴ Haur Hezkuntzako tutoreak eta eskola txikietako irakasleak: behin baja edo baimena erregistratu denean ordezkapena lehenengo momentutik beteko da. Haur Hezkuntzako espezialista eta laguntza irakasleak barne.
- ⤴ Lehen Hezkuntzako tutore eta gainontzeko espezialistak: behin baja jakin arazi denean 5. egun naturala baino lehenago ordezkatu dira.
- ⤴ Bigarren Hezkuntzako irakasleen bajak aste beteko epean ordezkatu dira. Baja aurreikusita badago lehenbailehen ordezkatu dira.
- ⤴ Landa eremuko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta bigarren batxilergoan ordezkapenak lehenbailehen bermatuko dira.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera DEPARTAMENTUAK INPOSATU DITUEN ORDEZKAPENETARAKO IRIZPIDEAK

2011-2012ko ikasturtearen hasieran, ordezkapenetarako hainbat neurri murriztaile eta zorrotz hartu ziren planifikazio ezagatik. Mobilizazioen bitartez Departamentuak atzera egitea eta hobekuntza txikiren bat egin zezan lortu genuen.

1. Ordezkapen guztietarako irizpide komunak:

- ✓ Ordezkapen prozesua hasteko bajaren-agiria aurkeztea ezinbestekoa da.
- ✓ Ordezkoa ez da ikastetxera joanen ez ostiraletan, ezta jai eta zubien bezperan ere.
- ✓ Ezkontza edo bikote egonkorra, eta aitatasunagatik diren baimenak salbuespen egoeretan bakarrik ordezkatu dira, beti ere ondo argudiatzen badira.
- ✓ Soldatarik gabeko lizentziak 15 egun baino luzeagoak badira bakarrik ordezkatu dira eta zenbait kasutan bakarrik (amatasun lizentziak...)
- ✓ Eskola orduen murrizketa duten irakasleei (zuzendaritza taldekoak, departamentu buruak, Lan Heziketako beste murrizketak, adinagatik...) zuzeneko irakaskuntza orduak bakarrik ordezkatu zaizkie.
- ✓ Zuzendaritza taldekoen liberazio orduak, bajak luzeak direnean, ikastetxearen ikuskariaren alde aurreko informea izanik eta ikastetxe-motaren arabera ordezkatu dira.
- ✓ Irakasleak ez diren langileen bajak ez dira ordezkatu orokorrean, pertsona bakarrekoak ez badira. 3 hilabete baino luzeagoak diren bajak aztertuko dira (jubilazioak, eszedentziak...)

2. Lanpostu bakoitzaren irizpide zehatzak:

- Baja erregistratu bezain pronto ordezkatu dira:
 1. Haur Hezkuntzako tutoreak
 2. 1, 2 y 3 gelak dituen eskola txikien irakasleak.
 3. TGD o PCPI eta gela alternartiboen Pedagogia Terapeutika.
- ✧ 4. eskola egunetik aurrera:
 - ✧ Lehen Hezkuntzako tutoreak.
 - ✧ Pedagogia terapeutikako espezialistak.
 - ✧ Tutoretza duten espezialistak.
- ✧ 8. eskola egunetik aurrera:
 - ✧ Lehen Hezkuntza gainerako irakasleak.
 - ✧ Bigarren Hezkuntzako irakasleak.
- ✧ 4 eskola egun baino gehiago ez igarotzea ordezkatu gabe:
 - ✧ Martxotik maiatza bitarte batxilergo bigarren mailako irakasleak.
 - ✧ Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleak.
 - ✧ PCPI, PCA, dibertsifikazioa kurrikularra eta PROAko irakasleak.

HEZKUNTZAKO JUBILAZIOAK

LOGSE-LOE.

LOGSEK, 1990ean, plantillak gaztetzeko helburuarekin, hainbat neurri sartu zituen (kotizazio urte gutxiago eskatu...) bai eta jende gehiagori aukera zabaldu ere (hezkuntzan emakume askok zaintza lanetan ibilitako denboran ez dute kotizatu).

1990. urtetik 2011 urteko abuztuaren 31 arte neurri hauek mantendu dira. Era berean Gizarte Segurantzaren menpe zeuden gainontzeko funtzionarioek ere jubilazioa hartzeko aukera izan dute, interinoek, berriz ere, ez. Beraz, azken 21 urte hauetan "LOEren jubilazioa" deitutakoaren baldintzak mantendu dira.

Orain, 2012an.

- Gizarte Segurantzaren menpe dauden gainontzeko irakasleek, funtzionario zein ordezko, 65 urte bete arte itxaron beharko dute. (aldez aurretik MUFACEko kideak ez badira izan), eta 2013 urtetik aurrera erretiratzeko adina luzatuz joanen da.
- MUFACEn dauden funtzionarioek 60 urterekin erretiratzeko eskubidea dute, beti ere orain arte baino baldintza gehiago eskatuz. Madrilen 2011ko otsailaren 2an sinatutako "Itun Sozial eta Ekonomiko"ak MUFACEko funtzionarioei erretiratzeko neurri murriztaileekiko "armonizazio" neurriak ezartzeko konpromisoa hartu du, eta, Ministerioak honako proposamena mahairatu zuen: berdintzeko MUFACEko jubilazioa eta Gizarte Segurantzakoa, bai adin eskakizunean, bai kotizatutako urte kopuruan.

Gure erronka.

- ⤴ Beste sektoreekin batera mobilizazio kanpaina bati ekitea egoera aldarazteko.
- ⤴ Hezkuntzako langileon jubilazio adina, egoera bereziak hala eskatuta, lehenago izatea beharrezkoa dela ikusaraztea gizarteari. Besteak beste, bi arrazoi hauek helarazi:
 - ⤴ Gutxi barru, hainbat ikastetxeetan, 60 urtetik goitiko irakasleak nagusi izanen dira.
 - ⤴ Irakasle gazteak bahiturik ditugu, eta hau asko da.

BORONDATEZKO JUBILAZIOA:

MUFACEko funtzionarioek erretiroa eska dezakete 60 urte betetzean, baldin eta 30 urte kotizatuak badituzte. LOEren erretiroan kotizatu bezala kontsideratzen ziren 60 urteetatik 65etara (5 urte horiek), baina oraingoan ez dira kontuan hartzen eta ondorioz, 35 urte kotizaturik izan ezean, pentsioaren kantitatea jaisten da Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen kasuan. Bigarren Hezkuntzako irakasleek, berriz, aski dute 33 urte kotizaturik izatea pentsioen maximora heltzeko. Marisak (948 20 33 31), "clases pasivas" ataleko langileak, pentsioaren simulazioa egiten du zerbitzu orria eta bizitza laboralaren orria eramanez gero.

2011 urteko urtarrilaren batetik, eskatutako 30 urte horiek lortzeko beste erregimen batetako kotizazioak kontuan hartu behar direnean, pentsio eskubidea izateko azken 5 urteak "Régimen de Clases Pasivas del Estado" delakoan kotizatuak izan behar dira.



Eskaera aurkezterakoan jubilatzeko data zehatza ezarri behar da, eta data hori baino 3 hilabete lehenago erregistrotik sartu.

JUBILAZIO AURRERATUA: 2011/02/02ko "Itun Sozial eta Ekonomiko"aren arabera langileak 63 urtetik aurrera borondatez erretiratu daitezke, beti ere, 32 urte kotizatuak izanik. Gelditzen zaizkion urte bakoitzeko %7,5 gutxituko da pentsioa.

www.stee-eilas.org

LAN BERDINA, baina...

ERRETIRO BALDINTZA



Funtzionario	ERRETIRO ARRUNTA	ERRETIRO AURRERATUA
MUFACEn daudenak	- 15 urteko kotizazioa gutxienez - Adina: 65 urte	- 30 urteko kotizazioa eta - 60 urte beteak izatea HITZARMENeko PRIMARIK GABE!!
Gizarte Segurantzian daudenak	- 15 urteko kotizazioa gutxienez - Adina: 65 urte	ORAIN EZ DAGO AUKERARIK !! (Ez badu 1967 baino lehenagoko kotizaziorik)

ETA GAINERA, HONEK ERABAKIKO DUENAREN ZAIN...



2012ko urtarrileko informazioa

Irakasleen Laguntza Zentroak

bertan behera uzteko asmoa azaldu du Departamentuak

Heldu den irailetik aurrera Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ILZak ixteko asmoa duelako berriaren aurrean STEE-EILAS Sindikatuak horren salaketa egin nahi du.

Informazio hau Mahai Sektorialeko sindikatu guztiei eman beharrean, Hezkuntzak antolatutako "lan talde"etan iragarri du . Lan talde honek Mahai Sektorialaren eginkizuna ordezkatzeko zuelako susmoa genuen, eta berri hau froga argia da. Era berean, ez du Formazio Kontseilua deitu, eta Kontseilu horren eginkizuna da onartzea eta ebaluatzea Plana eta beharrezkoak ikusten diren aldaketa organizatiboak. Behin berria zabaldu ondoren, ILZko zuzendariei eman zaie horren berri.

Gai honetan, beste hainbatetan bezala, Departamentua modu inprobisatuan ari da, bai eta autoritarioan ere, bat ere ebaluaziorik gabe, eta irakasleen iritzia kontuan hartu gabe. Plan zehatzik ere ez dago.

Behin eta berriro salatu dugun bezala, 2008 urtetik hona etengabe murriztu dute irakasleen formaziorako lerro ekonomikoa; %71,89 izaterainokoa izan da emandako murrizketa, eta honek arrisku larrian jartzen du Hezkuntzaren kalitatea, irakasleon lanerako gaurkotze zientifiko-didaktikoa ezinbestekoa baita.

Bere sorreratik ILZ-ek ikastetxeetan burutu dute irakasleen formazioa, eta horretaz gain hezkuntza-baliabideak bildu dituzte; honela, irakasleen eskura izan dira eta hainbat talderen bilerak gauzatu dira guneotan. Egitura oro hobetzen ahal da, bai eta egoera berrian egokitu ere; baina egitura desegitea subjektiboak diren usteetan oinarrituta ez da bidea. Modu objektiboan ebaluatzea da bidea, eta beharrezkoak ikusten diren aldaketak edota hobekuntzak ezartzea.

*cleanitza, integratzailea eta berritzailea
kritikoa eta parte-hartzailea
berdintasuna eta aristasunaren aldekoa*

...eta irakasle konprometitua!

**ESKOLA PUBLIKOAn,
non hobeki?**

Gurean, bada denontzako lekua



Kolere guztiak